



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Batzar Nagusiek, 3. linearen eraikuntzara funts gehiago bideratzea eskatu dabe

Bilbon, 2013ko ekainaren 7an

Batzar Nagusiek, gaur goizean batu dan Herri Lan eta Garraioetako Batzordearen bitartez, Euskadiko administrazioek 3. linearen eraikuntza lanak bizkortzeko funts publiko gehiago jartzearen aldeko apustua adierazo dabe. Bizkaiko Ganberak eskaerea egin deutse Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, Europar Erkidegoko erakundeek Espainiako Gobernuari defizit publikoaren zuzenketa epea zabaltzetik, sortutako baliabide publikoen hazkundearen “parte bat” horretara bideratu daien. PP taldeak aurkeztu dauen ekimenak Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeen laguntzea jaso dau.

Akordioa ez da aho batekoa izan, Bilduk azken argazkitik kanpo geratzea erabagi dauelako, abstentzinoaren bitartez. Talde horren eretziz, proposamenari “zehaztasuna” falta jako. Bilduk egindako kalkuluak kontuan izanda, defizit igoerearen ez ohiko baliabideen %100 horretara bideratuta be ezingo litzateke Matiko eta Etxebarri arteko lineak dauen gain-kostua ordaindu. Bilduk adierazo dauenez, gain-kostu hori 133 milioi eurokoa da, hasierako aurrekontuan aurreikusten ziran 153 milioietatik gaur egungo 286 milioietara pasau dalako. “Gain-kostu horren %67ra baino ez ginateke helduko”, adierazo dau Aitor Torrek, Bilduko ordezkoko bozeroaleak.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira 3. linea “lehenetasunezko” eta “derrigorrezko” proiektua dala esaterakoan. Obra hori “ahalik eta arinen” amaitzeko “egin beharreko guztia” egin behar da, gogoratu dabe. Jesús Isasiren (PP) eretziz, iragarritako “ez ohiko” baliabideak “aukerea” izan daitezke obrako erritmoak arintzeko. Joaquín Colmenero (PSE-EE), trenbide metropolitarrak zabaltzeko proiektu hori, Euskadiko erakundeek aurkeztutako Ekonomia Bizibarrizteko Funtsean sartzearen alde agertu da. Ermuko saihasbidearen eraikuntza be funts horretan sartzeko eskatu dau. EAJ-PNV-k bere atsekabea azaldu dau Bildu “argazkitik” kanpo geratu dalako, danok ados egon arren 3. linea “beharrezkoa” dala esateko orduan.

### SEINALEZTAPENAREN HOBEKUNTZEA TXIRRINDULARIAK IBILTEN DIRAN ERREPIDEETAN

Batzorde guztia ados jarri da Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraioetako Sailari “Foru Errepide Sareko seinaleztapena hobetzeko lanak eta txirrindularien zirkulazioa dala eta arrisku egoerearen barri emoten daben seinaleen instalazioagaz jarraitu daian” eskatzeko orduan. Proposamena aurkeztu dauen taldeak (PP) onartu egin dau Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeak aurkeztutako gehikuntzako zuzenketa-eskea, txirrindulariak ibiltzen diran errepideetako bazterbideak egokitzeko eskaerea be



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

gehitzeko. Taldeen eretxiz, “bideko zuloak konponduta eta zikinkeria garbituta” istripu asko saihestuko litzatekez.

Eztabaidan, PSE-EE eta Bildu taldeek, Europako herrialde batzuetan, errepidea automobilek eta txirrindulariek erabilten dabela erakusteko, jarten dan “marra gorria” zabaltzearen alde agertu dira, baina PSE-EE taldeko Joaquín Colmenerok adierazo dau “Marra Gorri” horrek talka egingo leukela Estatuan indarrean dagoan araudiagaz. “Gaur egungo legediak ez dau horretarako aukerarik emoten”.

EAJ-PNV taldeak adierazo dauenez, Foru Aldundiak urteak daroaz Bizkaiko Txirrindularitza Federazioagaz beharrean, gurpil biko ibilgailuek gehien erabilten dituen bideen diseinuan eta ustiapenean. Erakunde bi horreek sortutako “laneko mahaia”, zorua eta garbiketa hobetu daitekezan puntuak aztertzen ditu. Foro horretan ikusi da txirrindularien “ardura nagusia” ez dala seinaleztapena, txirrindulariek eta automobil gidariek zirkulazino kodea ez betetea baino, Javier Setien batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez. Talde horrek sentsibilizazinarako eta bide hezkuntzaren sustapenerako kanpaina gehiago eskatu ditu, eta PSE-EE taldeagaz bat etorri da horretan.

## ALDAKETAK ABIADURA MUGETAN

Bere agerraldian, Itziar Garamendik, Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, eskaerea egin deutse oposizionoko taldeei, Rajoyren gobernuak, Zirkulazino Araudi Orokorrean egin beharreko aldaketa baten bitartez, ustez, prestetan dabilen abiadura mugen aldaketak dirala eta, espekuletan ibili ez daitezana. Aldaketa horreek autopistetako eta autobideetako zati batzuetan abiadura 130 km/h-ra handitzeko eta “ohiko” errepideetan abiadura hori murrizteko aukera emongo leukie. Aldaketa horreek onartzen badira, Aldundiak bere esku dagozan zatietan egin daitekezan aldaketak aztertuko ditu. Kontuan izan behar dogu Euskadin eskumen hori banatuta dagoala. Autopistei buruzko erabagia Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta hiri arteko gainerako errepideei buruzkoa Aldundiaren esku. Adierazo dauenez, ez da “serioa” “zirriborro” batean oinarritutako ezer aurreratzea.

## ARTXANDAKO TUNELAK

Aldundiko arduradunak Bizkaiko batzarren aurrean azaldu ditu barriro bere sailak Artxandako tuneletan egindako konponketa lanak, zati batean ezponda bat jausi eta gero. Hori dala eta, lur azpiko tuneletako bat hilebetez itxi behar izan zan. Garamendik esan dauenez, konponketa lan hori 3 milioi euro baino gehiagokoa izan zan. Partida horren %30 drainatzea, irazgatzea, estaldurea eta ezponden egonkortasuna hobetzera bideratu da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Garamendik azaldu dauenez, tuneletan egindako azkeneko azterketa geoteknikoa 2007an egin zan, eta azterlan horretan esaten zan, neguan egindako euri ugariak dirala eta orain arazoak izan dituan zatia “egoera onean” egoala. PP-k, azterlan horreek “sarriago” egitea eskatu dau. Diputatuak erantzun dau tuneletako mantentze lanetako teknikariek “aldian behin berrikusten dituela ezpondak eta errepideko elementu guztiak, baina hau ez dala zientzia zehatza. Prebentzino neurriak hartu daikeguz, lurretenik gertatu ez daiten”, esan dau.

### BEHERAPENAK GAZTEENTZAT BIZKAIBUSEN

Beste alde batetik, Bildu taldeari erantzunez, Aldundiko arduraduna, Bizkaibus zerbitzuko beherapenak gazte “guztiei” zabaltzearen alde agertu da, eta ez Leioako unibersidadeko campusera doazan gazteei bakarrik, Bilduk, agerraldia eskatzeko aurkeztutako idazkian adierazoten eban moduan. Neurri horreek talde horrentzat “bakarrik” hartu ezkeru, “bazterkeria bultzatzen egongo ginateke”, esan dau. Garamendik adierazo dau Bizkaibuseko txartela diruz lagunduta dagoala, eta bere sailak une honetan jarraitzen dauen tarifen politikak %25eko beherapena eskaintzen dauala Barik txartela erabilten bada, eta kopuru horri beste %20 gehitzen jakola bidaia konbinatuan, garraio aldatzea egiten bada. Gogoratu dauenez, Aldundiak 78 milioi euro jarriko ditu aurton zerbitzu horri eusteko.

Dana dala, diputatuak jakinarazo dau bere saila beharrean dagoala, beherapen edo txartel barriaren ezarpena, horren erabilgarritasunari eta kostuari buruzko azterketa “zorrotzean” oinarrituta egin daiten. Bidaiari kopurua asko hazten bada be, edozein titulu barri sartzeak eraginak ditu. “Defizita arintzera zuzendutako aurrekontuetako partidea zabaldu egin beharko litzateke”, adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## Las Juntas Generales piden que se aporten más fondos para acelerar la construcción de la Línea 3 del metro

Bilbao, a 7 de junio de 2013

Las Juntas Generales, a través de la Comisión de Obras Públicas y Transporte reunida esta mañana, han expresado su apuesta por que las administraciones vascas inyecten más recursos económicos para acelerar la construcción de la Línea 3. La Cámara vizcaína ha acordado instar al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia, instituciones encargadas de financiar la ampliación del suburbano, a que destinen “parcialmente” el aumento de los recursos públicos derivados de la ampliación del déficit público concedido por las instituciones comunitarias al Reino de España. La iniciativa presentada por el PP ha contado con el apoyo de los grupos Nacionalistas Vascos (PNV), Socialistas Vascos (PSE-EE) y Popular Vizcaíno (PP).

El acuerdo no ha sido completo, ya que Bildu ha decidido descolgarse de la foto final con su abstención, ya que este grupo considera que a la propuesta le falta “concreción”. Según cálculos realizados por este grupo, ni destinando el 100% de los recursos extras incluidos en este aumento del déficit, se alcanzaría a pagar el sobrecoste de la línea entre Matiko y Etxebarri, cifrado por Bildu en 133 millones de euros, al pasar de los 153 millones inicialmente presupuestados, a los 286 actuales. “Llegaríamos sólo al 67% de este sobreprecio”, ha mantenido Aitor Torre, portavoz suplente de Bildu.

En lo que sí han coincidido todos los grupos junteros es en definir la Línea 3 como un proyecto “prioritario” e “imprescindible”. Se debe hacer “todo lo necesario” por terminar la obra “cuanto antes”, han recordado en el debate. Jesús Isasi (PP) cree que los recursos “extras” anunciados, pueden ser una “oportunidad” para que los ritmos de obra se aceleren. Joaquín Colmenero (PSE-EE) ha abogado por enmarcar este proyecto de ampliación del ferrocarril metropolitano en el Fondo de Reactivación Económica presentado por las instituciones vascas y añadir también en él la construcción de la variante de Ermua. El PNV ha lamentado que Bildu se haya salido de la “foto”, ya que existen coincidencias en que la línea 3 es “necesaria”.

### MEJORA DE LA SEÑALIZACIÓN EN CARRETERAS CON CICLISTAS

Sin embargo, la Comisión ha sido unánime a la hora de animar al departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación foral a que continúe con la “mejora de la señalización de la Red Foral de Carreteras y con la instalación de señales de advertencia de peligro por circulación de ciclistas”. El grupo proponente (PP) ha aceptado una enmienda de adición del PSE-EE para que la Institución foral acondicione también los arcones de las vías transitadas por los ciclistas. Crean que se evitarían accidentes “arreglando los baches y limpiando la suciedad”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

En el debate, PSE-EE y Bildu han apostado también por extender la “Línea roja” utilizada en algunos países europeos para visibilizar el uso compartido de la calzada para coches y bicicletas, aunque Joaquín Colmenero, del PSE-EE, ha advertido que la llamada “Marra Gorria” chocaría con la normativa vigente en el Estado. “La legislación actual no lo permite”.

Según el PNV, la Diputación foral lleva años trabajando de manera coordinada con la Federación Vizcaína de Ciclismo en el diseño y la explotación de las vías más utilizadas por los vehículos de dos ruedas. La “mesa de trabajo” creada por estas dos instituciones analiza aquellos puntos donde se puede mejorar el firme y la limpieza. En este foro, se ha constatado que la “principal preocupación” para el colectivo de ciclistas no es la señalización, sino el incumplimiento del código de circulación por parte de ciclistas y conductores, según el apoderado jeltzale Javier Setién, quien ha pedido más campañas de sensibilización y fomento de la educación vial, coincidiendo con el PSE-EE.

## CAMBIOS EN LOS LÍMITES DE VELOCIDAD

En el turno de comparecencia, la Diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha pedido a los grupos de la oposición que no especulen con los cambios en los límites de velocidad que al parecer está preparando el Gobierno de Rajoy, a través de un cambio en el Reglamento General de Circulación, modificaciones que podrían aumentar la velocidad en algunos tramos de autovías y autopistas hasta los 130 kilómetros por hora, y reducir el límite de velocidad en el resto de carreteras “convencionales”. En caso de que se aprueben estos cambios, la Diputación estudiará modificaciones en los tramos de su competencia, ya que en Euskadi ésta está compartida. La decisión en las autopistas recaería en el Gobierno Vasco y en el resto de carreteras interurbanas sería competencia foral. La diputada ha advertido de que no sería "serio" adelantar una decisión sobre lo que es un “borrador”.

## TÚNELES DE ARTXANDA

La responsable foral se ha vuelto a referir en la cámara vizcaína a las reparaciones efectuadas por su departamento en los túneles de Artxanda, después de que se desprendiera un talud en uno de sus tramos, lo que obligó a cortar durante un mes uno de los tres subterráneos. Según Garamendi, la reparación costó algo más de 3 millones de euros. El 30% de esta partida fue destinado a la mejora del drenaje, la impermeabilización, el revestimiento y la estabilización de los taludes.

Garamendi ha señalado que la última revisión geotécnica efectuada a los túneles se realizó en 2007 y que estos informes apuntaban que el tramo dañado después por el desprendimiento, como consecuencia de las intensas lluvias invernales, estaba en “buen estado”. El PP ha pedido que estos estudios sean “más periódicos”, a lo que la diputada ha contestado que los técnicos de mantenimiento de los túneles ya revisan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

"periódicamente los taludes y todos los elementos que van unidos a la carretera. Podemos tomar medidas preventivas para que no se produzcan los desprendimientos, pero no estamos ante una ciencia exacta", ha dicho.

## DESCUENTOS PARA JÓVENES EN BIZKAIBUS

Por otra parte, en contestación a Bildu, la responsable foral ha apostado por extender los descuentos en el servicio Bizkaibus a "todos" los jóvenes y no sólo a los estudiantes que se trasladan al campus universitario de Leioa, como inicialmente pretendía Bildu en su escrito de comparecencia. De hacerlo "exclusivamente" para este colectivo, "estaríamos fomentando la discriminación", ha dicho. Garamendi ha apuntado que el billete de Bizkaibus está subvencionado y que la política tarifaria actual seguida por su departamento ofrece ya un descuento del 25% si se usa la tarjeta Barik, a lo que se suma otro 20% extra sobre el viaje combinado si se realiza un trasbordo. Ha recordado que la Diputación aportará 78 millones de euros durante este año para mantener el servicio.

En cualquier caso, la responsable foral de Transportes ha informado de que su departamento trabaja para que la implantación de un nuevo descuento o billete, esté cimentada sobre la base de un análisis "riguroso" sobre su utilidad y coste. Por más que se incremente la partida de viajeros, la inclusión de cualquier título tendría sus consecuencias. "Habría que ampliar la partida presupuestaria destinada a paliar el déficit", ha advertido.